

# Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2002ko ekainaren 14a VII.urtea

Usurbil, 138. zenbakia

*Arrastalu,*  
aurpegi anitzeko artista

# USURBI L

GIDARI-ESKOLA



*%20ko deskontua matrikulan!*

**MATRIKULA ZAITEZ!**

*Kale nagusia, 5  
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*

## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ,  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT, TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK, EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPTOAREKIN, KOTXIAK GARRITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAZ  
SARRERAK: 500.000 pezetarik, HILEKOAK: 15.000 pzl.

**MENDIGAIN S.M.** ERAGILE INMOBILIARIOA, Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

### ✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen  
horniketa eta nekazari lanerako  
behar diren produktuak: ongarriak,  
fitosanitarioak, tresnak, baratxantza,  
haziak, patata, e.a.



### ✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu  
eta txori jana

### ✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa,  
zainzuriak, piperrak,  
babarrunak,...

**ETORRI ETA  
EZAGUTU!**

*Ondo pasa Sanjuanak!*

**BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN**

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: [alkartasuna@fcae.org](mailto:alkartasuna@fcae.org)

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **bikote!**  
Ez pentsa zuen urtebetetze egu-  
naz ahaztu garenik. Ea afariren  
bat prestatzen duzuen. Zorionak  
eta muxu handi bat etxekoan  
partez!



Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: **ekainak 28.**

Ekartzeko azken eguna: **ekainak 21.**

## Jaiotzak

Haritz Loidi Astiazaran

2002-V-26

Santuenea

## Hildakoak

Elena Rodriguez Garcia

2002-VI-3

Urdaiaga

**B**ai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzaintza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epategia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturrigalde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

### Ekaina

| Astel. | Asteaz. | Asteaz. | Osteg. | Ostira. | Larun. | Igand. |
|--------|---------|---------|--------|---------|--------|--------|
|        |         |         |        |         | 1      | 2      |
| 3      | 4       | 5       | 6      | 7       | 8      | 9      |
| 10     | 11      | 12      | 13     | 14      | 15     | 16     |
| 17     | 18      | 19      | 20     | 21      | 22     | 23     |
| 24     | 25      | 26      | 27     | 28      | 29     | 30     |

● Hurrengo alea

### Udaltzaingoa ordutegia

#### Astegunetan

6.00/22.00

#### Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu  
deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria  
Bordaberri, 3  
Usurbil  
noaua.k.e@euskalnet.net

**Kexaren bat  
baduzu, kritika-  
ren bat eskuar-  
tean badabilkizu edo eta herri-  
ko zerbaitez hitz egin nahi  
baduzu guk ikamikan toki bat  
egingo dizuegu.**

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbes-  
tekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

# 3er irizten?



## Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

## Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

## Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

## Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

## Zuzentzailea

Eneko Harreguy

## Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietia, Iñaki Agirresarobe, Alex Udabe eta Mari Angeles Arruti.

## Bazkidetza

Aitziber Aranberri

## Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe, Zaloa Arnaiz eta  
Agurtzane Solaberrieta.

## Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

## Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

## Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

## Tirada: 2.600 ale

## Lege-Gordailua: SS-668-96

## ISSN: 1136-6818

## Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

## AZALA

Honakoan Arrastalu artista izan dugu solaskide.



## Okupabilitatearen erreforma

**Josune Mujika,  
enplegu eta garapen agentea**

**N**ahiz eta Espainiako Gobernuak gauzatu nahi duen erreforman alderdi aipagarri asko izan, deigarriena zera da, langabetuak laguntzak jasotzen jarraitzeko jasan beharko dituzten baldintzak. Prestazioen eskabidearekin batera iharduera konpromisoa sinatu beharko dute, dokumentu honetan beste betebeharrak batzurekin batera "lan egokia" betetzera konprometitzen direlarik. Lan egokia zein den Enplegu Zerbitzu Publikoak erabakiko du, hala ere, Gobernuak kontzeptu hau honela definitzen du: hasieran langabetuaren ohizko lanbidea izango da edo baita ere bere prestakuntza edo abilezi fisikoetara egokitzen den edozein lan, baina, urtebete pasa ondoren, langileak burutu dezaken edozein lan izan daiteke horrela kontsideratzen badu dagokion Enplegu Publikoko Bulegoak.

Erreforma honek langabetua hitzik gabe uzten du eta nahiko heldutasun ez balu bezala tratatu, momentuoro Enplegu Bulegoak bere izenean erabakiak hartuz eta guzti hori dirulaguntza kentzearen mehatxupean. Beraz, langabetuak ez du aukerarik erabakitzeko zein den bere bide profesionalik egokiena, edozein lan hartzera behartua izan baitaiteke. Hau lan orientazioan oso maiz hitzegiten den lan mundurake-

taren prozesua langabeak berea egitearekin kontrajarria dago era bat, askatasunik gabe uzten baitu langabetua erabakitzeko, eta beraz proiektu profesional pertsonalak ez dute lekurik Gobernuak burutu berri duen erreforma honetan, ahaztu egin bait zaizkio langabetuen interes eta beharrak.

Erreforma honen atzean egon daiteken helburua betetze ez diren lanak "okupatzearena" litzateke, kontutan hartu gabe lan hauek atzean kondizio desegokiak izaten dituztela.

Lege honen aplikazioan INEM eko langileak hartuko duten jarrera ere oso garrantzitsua izango da, baita ere hauek jasango duten presio maila betetze ez diren lan horiek "okupatzeko".

Beraz, kontua ez da langabetuak bere interes, gaitasun eta trebezieta oinarritutako lan duin bat lortzea, baizik eta edozein modutan eta prezio-tan, betetzen ez diren lan horiek okupatzea eta bide batez langabeziako estatistikak jeistea.


Beste aldean ere, eskeintza egiten duen enpresari ere ez dut uste mesede haundirik egingo zaionik, beharturik eta gogoz kontra langile bat eskeintzen zaionean, ia ziur nago lan harreman hori frakasora kondenatzea dela.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

# Arau subsidiarioen aurrerapenari iradokizuna

**B**ehean sinatzen dugun herritarrok, gure udalerriaren planeamendua aztergai dagoen honetan, gure kezka eta iradokizunak dizkiogu Usurbilgo udalari, Aginagako beste hiru herritarrek beste iradokizun bat aurkeztu duten bezala. Gure iritzia gainera herritar guztiei ere jakinarazi nahi dizkiegu, esku artean dugun arazoa oso garrantzizkoa da eta.

Udal horrek emandako agindu eta diruarekin Sagarna ahizpek idatzi duten "Usurbilgo lurren erabilera jasangarria" txostenaren laburpen-argitaratua, lan bikaina dela adierazten dugu. Bere orokortasunean, alperrik galtzeko ezer ez badauka ere, ondo barneratu beharko genuke bere sarrerari jasotzen den mezua:

"Etorkizun hurbilean, lurraren erabilera arazo garrantzitsua izango dela entzuten hasi gara, izan ere, gero eta urriagoa den baliabidea baita. Geldiezina dirudien garapen urbanistikoa eta azpiegiturak osatzen duten sarearen zabalte prozesua, landa lurraren murriztea ekartzen ari da. Baina, badirudi ez garela konturatzen honek guztiak kaltegarriak eta itzulezinak diren ondorioak ekartzen dituela eta askotan aldaketa izugarri honen aurrean ikuslearen jarrera hartzen dugu, gure esku ez dagoen zerbait gertatzen ari dela uste baitugu. Baina guztiok herri bateko par-taide garen neurrian dugu erantzukizuna."

Honen aritik, espreski, agiri honen sinatzaileok, nekazari-tza giroko paisaia mantentzen duten inguruneen kezka dau-

kagu, eta gure kasura etorriaz Aginagako erriberari dagokio-na. Behin eta berriro azpimarratu nahi dugu ingurune hauek daukaten balio agrológicoa, naturalistikoa, paisajistikoa, eta nola ez, kulturala.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa den Donostialdeko Lurraldearen Zatikako Planak, Usurbilgo udalerria interesgune berezikiotzat izendatzen du, eta ez lurralde babestu bezala, metropoliak etengabe eskatzen duen lurralde urbanizatu bezala bilakatzeko baizik. Plan honek adierazten duen benetako asmoari erreparatu besterik ez dago (+50 kotatik gorako lurak ez zaizkio interesatzen), guztiok dardarez jartzeko. Duela 40 urte herri honen planetan aurreikusi ziren espekulazio urbanistikoen atzaparrak somatzen ditugu.

Hau guztia nahikoa ez, eta udal horren aginduz Luis Renedo eta Jose Mari Bravo arkitetoak lantzen ari diren Arau Subsidiarioen Aurrerapen dokumentuan jasotzen denez, N-634 errepidearen sahiesbidea, eta hau eta oraingo errepidearen arteko trazaketaren arteko lurra urbanizagarri bihurtzea proposatzen da Aginaga auzoan. Are okerragoa dena: honetarako Aginagako erriberaren lur eremua zeharkatzen da Txokoaldeko zubiaren paretik hasi eta ia Mapileraino.

Nahiz eta dokumentu hau Aurrerapen fasean egon, horrelako proposamenak egin aurretik, oso sakon aztertu behar lirateke, antzeko azpiegituraren beharrak, aukerabide desberdinak, eragindako kalte ekonomiko, ekologiko,

paisajistikoa, kultural eta antzekoak. Gure lurra, natura eta etorkizuneko gizaldiekin jokatzen ari gara. Kontu handiz eta sakontasuna daukaten analisien ondorioz hartu beharreko erabakia da. Zer lurralde utzi nahi diegu etorkizuneko gizaldiei? eraikuntza, errepide, zarata, ormigoi eta asfaltoarekin estalitako lur eremu bat?. Kontuz eta tentuz ibili beharko dugu, desarrolismoaren gorpil eroak bultzatuta itzulezinezko egoerara eramanez nahi ez badugu, guztiona eta guztiontzat den natura eta ingurumena.

Arrazoiketa honen inguruan, Usurbilgo udalerriaz, beste hainbat ataka desberdinetatik ere sakontzen jarraitu genezake, baino uste dugu, hasieran esan dugun moduan, Sagarna ahizpek landu duten "Usurbilgo lurren erabilera jasangarria" txostenean ezin hobeto jasota dagoela, eta oso kontutan hartzeko eskatuko genioke udal horri.

Eta bukatzeko, eskari edo iradokizun honen mamia adierazten diogu udal horri:

1.- Usurbilgo udalerrian dau-den erribera guztiak ingurune babestu bezala izenda ditzala.

2.- Aginagako auzoan N-634 sahiesbideak ez dezala bertako erriberaren lurrik hartu, eta horren inguruan alde aurreko azterketa guztiak landu ditzala, ezer baino lehen beharrezkoa den argitu, ez baitago horretarako neurketa eta analisiarik. Eta hala balitz ere, trazaketarako aukerabide guztiei ateak irekitzea, Lasao-Mapil lurrazpiko tunela barne.

**Lontxo Zubiria, Jokin Pagola eta Alejandro Tapia**

# SANTUENEA

Agurtzane Solabarrieta



## Kaia jaitsiera Santixabeletan

**A**urten ere, Santixabel jaien kariatara, kaia jaitsiera izango dugu auzoan. Uztailaren 4a Atsedeen eguna tokatzen bada ere, egun aproposa izango da kirola egiteko, eta, era berean ere, ordura arteko

garagardo eta kalimotxoak (eta auskalo zer gehiago!) botatzeko. Izerdi pixkat botatzek on egingo baitigu!

3. edizioa da aurtengoa eta azken bi urte hauetan bezala-

xe, ea aurten ere parte hartze eta giro ederra errepikatzen den. Udalak enbarkadero txiki bat jarriko du Zorrotza zubiaren azpian kaiak bertatik ateratzeko. Gezurra badirudi ere, Oria ibaiak eskaintzen digu zerbait egiteko parada. Beraz, ez galdu aukera eta aprobetxatu!

Iaz, gainera, udara osoan zehar egon zen enbarkaderoa jarrita, bertan edozein ibili ahal izateko. Piraguismo ikastaroa ere antolatu zuten iaz uztaila eta abuztua bitartean.

Beraz, txoko honetatik eskaera hau egin nahi diot udalari: aurtengo udaran ere bertan enbarkaderoa jartzeko, giroa sortzen duelako eta Oria ibaiatz gozatzeko aukera izateko.



# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Usurbildarren Bizikleta

**U**surbildarrok edozein ekin-tza antolatzerako orduan ez dugu sekula hutsik egin. Horren azken adibidea, Euskal Bizikletak herrian izandako egunak. Aste erdian tokatu ziren bi egunak, baina hala ere jendeak lanetik jai egunak hartu, askok oporretako jai egunak sakrifikatuz, eta horrelako ekitaldi batek sortzen duen mugimendu guztiari aurre egiteko prestatu ziren. Adin guztietakoak, zahar eta gazte, lanean; bidegurutzek ixten, bailak jartzen, kentzen... nahiz eta lehen egunean eguraldiak gehiegi lagundu ez.

Ikusle bezala agertu ginenok harro sentitu ginen usurbildarrak izateaz. Umeak ere gustura

ibili ziren txirrindularitzako beren izarrak direnei sinadurak eskatuz, izan ere, oso giro polita sortu baitzen batez ere irteera egunean.

Ea animatzen diren hauetako batzuk kirol honekin bat egitera. Euskal Bizikletako antolatzaleak ere gustura geratu ziren Usurbilek eman zuen ejenpluarekin, berriz ere eskainiko diote bai herriari horrelako ekintza bat. Hurrengorik bada ea bertan izateko

aukerarik izaten dugun behintzat.

Beraz, zorionak eman bai herritarrei bai udalari egindako esfortzuarengatik.

Bejondeiela!



# KALEZAR

Ainara Uribe



## Badatozela, badatozela San Juanak!!!

**E**z dakit zuei baina niri, festak somatzen hasten direnean barrukaldean bizi poxaren zirrara sortzen zait.

Kalezaharren iadanik festa mugimendua antzematen da: gazteak bilerak maizago egiten, sua egiteko materiala gero eta gehiago pilatzen, eta aurten gauza berri bat antolakuntzaren aldetik, umeen eguna antolatzeke gurasoak elkartu dira, haur multzo handia dagoen seinale da hori, eta hor bildu dira Udarregi Zaharrean astero-astero, beren haurrei egun bateko protagonista izateko aukera lantzen. Izan ere, egun horretan umeez disfrutatzen dutena ikusteko pena merezi du ordu batzuk

eskeintzea haur egunerako. Beraz txalo bero bat guraso horientzako!!!!

Larunbatean, Plis Plas Txalo eta Jolas zegoen Kalezaharren baina eguraldi kaxkarra zegoenez Usurbilgo frontoian egin zen, a ze dantzak egin zituzten etxeko txikienek eta gero txokolate beroa edan zuten, egia esan ondo sartzen zen, prexko baitzegoen kalean.



Beno ba, festetarako gonbitea luzatzen dizuet eta gazteei esan parte hartzeko aukera handia dagoenez, ba aurrera, animatu, San Juan!!!!

# ATXEGALDE

## Atxega aldean

Amagoia Mujika



**A**urrekoan "Atxega aldera" bueltaska eginga naiz, Euskal Bizikletaren aitzakian.

Ez naiz txirrinduzale amorratua baina, tira, halakoak ez dira egunero ikusten eta, gainera, ez zen aitzakia txarra paseorako.

Tamalez, gorantz begira jarri gintuen eguraldi kaskarrak, hura euria bota beharra hura... industrialdeko enpresaren batek ere gora begira jarri gintuen, gozokiak botatzera animatu zelako eta, gainontzean, luze egon ginen aipatu posturan baina gure aldera, behinik behin, ez zen erori txapelik, kamisetik edo halakorik.

Jende ugari bildu zen helmugara, asko eta asko gora begiratu behar duten horietakoak, alegia, oraindik dezente luzatuko direnak. Eta, nahigabe edo, hauei begira egon nintzen txirrindulariak iritsi artean, "badatozela eta ez datozela"-ko tarte horretan. Duela hilabete batzuk Sei Elkarateak herrian egindako kale neurketa baten arabera, gizonetakoek emakumeetakoek baino gehiago egiten dute euskaraz.

Orduan dagoeneko harritu ginen. Eta, zergatik, gizon txiki horiek, laupabost urte besterik ez dituztenak hika kasik primeran menperatzen dute eta neskatoek ez?. Eta neskato

esaten dudanean ez naiz laupabost urteko horietaz ari, gure inguruko "neskatook" ere ez dugu oso ondo menperatzen hitanoa. Ez ote dugu guk eredu onik ematen?. Baina, oraindik, mutilak mutilen eredu eta neskak nesken eredu izaten jarraitzen al dute?.



# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Uholdeak gogoratuz

**E**kainaren 1ean bete dira bost urte hainbeste buruhauste eman zizkigun uholde ikaragarri hura gertatu zenetik. Igandea zen, goiz-goizetik euria egin zuen baino bederatziak aldera eurijasa ikusgarriak bota zituen eta auzoa ederki astindu zuen.

Eskerrak etxekoak mendira joateko aukerarik ez zutela izan, ohitura duten bezala (Pagoeta eguna zen hain zuzen) eta auzokoen laguntzaz lasterka etxetik kanpora atera ninduten. Izan ere, konturatzerako Andatzatik behera zetorren urak dena txikitu baitzuen.

Auzoko etxe askotan kalte galantak izan zituzten bat-

batean. Orduan ere esan nuen, eskerrak gauean ez zen gertatu bestela auskalo zer pasako zen egun hartan.

Gero kaltetuak hor egon ginen denok Erroizpe Elkartean urak bere honera noiz etorriko zain. Oso une latzak izan ziren. Urteak pasa dira, baino bizi garen bitartean gogoratuko ditugunak. Auzo guztia elkarlanean ondokoari laguntzeko nola bildu zen ikustea oso pozgarria izan zen.

Aurreneko bi urtetan auzoa bere onera bueltatzen eta bazterrak garbitzen laguntzen ibili zirenei eskertu asmoz, afari bat antolatu zen, urtero egiten jarraitzeko nahiarekin. Baina

azkeneko hiru urtetan ez da biltzeko aukerarik izan.

Uholdeak, nolabait esateko, gauza onak ere ekarri ditu, izan ere, ondoren auzoak itxura zeharo aldatu baitu, onerako noski: frontoi berria, erreka agerian, irabi bidea berritua tren bideko pasoa ezabatuz, apartakalekua, eta abar.

Niri ere ondoren pixka batean ondo etorri zitzaidan, kalteen konpontze lanak iraun zuen bitartean berri iturri etengabea eduki bainuen.

A ze pagotxa! Sarritan larri xamar ibiltzen gara zer kontatzeko ez daukagulako eta orduan, berriz, astero zer kontatua banuen.

# KALEBERRI

Eneko Harreguy



## Puzzlea

**H**ori da nire idazkiaren izenburua. Batetik eta bestetik, hemendik eta handik hartutako eta pentsatutako eta ikusitako kontuak baidakartzat orrira.

Hasteko, esan behar, Sanxtebanen nagoela. Albariton etxetik gora lehenbizi topatzen dugun mahaiaren jazarrita. Eta goitik, goi-goitik datorren urak zaldi baten buztanaren itxura du. Behin izan naiz Ordesan, eta hango parkean ere antzeko itxura zuen urjauzi bat erortzen zen.

Zaldia aipatu dudanez, Bizkarreko baserriko zelaian ikusi dut zaldi bat. Lehenbiziko aldiz. Ez zaldi bat. Bizkarreko baserrian

zaldi bat. Kotxez pasa naiz, eta ez dut izan begiz gozatzeko aukerarik, baina marroi ilun antzerakoa dela esango nuke. Gorpuzkera argala bezain dotorea zuen.

Ikaragarri maite ditut zaldiak. Eta nagoen lekua ere bai, Sanxteban. Baina konpondu beharreko zenbait arazotxo dituela esango nuke. Bat: zerrikin hutsak garela.

Mahai, mahai ondoko, eserleku eta ingurukoak kuxidade ederrean uzten ditugu.

Eta ez da alferrak garelako ez dugula jasotzen. Ez da alfer kontua soilik. Ze badago jendea lan ederra hartu duena - ez dakit zein puntadun katxa-

rrorekin- mahaiak zulatzen ibiltzeko! Denbora nola pasa ez dakiten horiei burua pixka bat erabiltzeko eskatuko nieke, baina ez ordurarte erabili duten gisan. Bi: mahai inguruetan, batez ere, zaborra pila-tzen da. Eta, neurri batean, zakarrontzirik ez dagoelako da. Egon, badago, baina urrutiti samar geratzen da; eta pazientzia gutxi dutenentzat aproposa izango litzateke zakarrontzi batzuk jartzea mahai inguruetan.

Beno, eta gaurkoz besterik gabe, bukatzera noa. Kalezar-tarrei zorionak eta ondo pasa ditzatela/ditzagula San Juanak!

# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



## Puntuko txapelketa

**G**ipuzkoa mailan, jubila-tuen arteko txapelketa antolatzen dute urtero eta Aginagako Arrate egoitzatik ordezkari bat hartu du parte: Dolores Bengoetxea, Sekañakoa, eta Pakita Orbegozo, Etxe Maitekoa. Hau da Aginagan daukagun bikote bikaina.

Lehenbizi, Zumaiara joan ziren jokatzera eta hiru partida jokatu behar izan zituzten txapelketan aurrera egin ahal izateko.

Zumaian irabazi ostean, bigarren iteera Elgoibarrera egin zuten eta partida bakarra nahikoa izan zuten irabazteko.

Garaipen honekin aurrera egin zuen gure bikote honek. Ekainaren 18an, datorren asteartean hain zuzen, Errenteriara joan beharra daukate jokatzera eta hori irabazten badute finalera iritsiko dira Dolores Bengoetxea eta Pakita Orbegozo.

Bidea luzea izan da baina finala eskuan dute eta nork daki, agian Gipuzkoako Txapelketa Aginagara ekartzeko aukera. Ea hala den!

Argazkian azaltzen dira Arrate egoitzan bere zuzendari duten Ixiarrekin. Aurrean dituzte orain arte jasotako sariak.

Animo bikote!



# ZUBIETA

Xabier Arregi



## Obrak eta jolasak

**H**erria hankaz gora daukagu. Plaza inguruko obrak hasi zirenetik urte erdia pasa da ia, eta inguruak lardaskatzeaz aparte, ezer gutxi egin da. Makinek aspaldi egin zuten ospa eta badirudi ez dagoela aurrerabiderik.

Zubietako Herri-Batzarra etenik gabe ari da ahaleginetan obrek beren martxa egokia har dezaten. Baina ezin esango dugu gure gestioak emankorrak izan direnik. Tira, besterik ezean, argibideak behintzat eman nahi ditugu.

Arazo ugari sortu dira, baina denetan larriena hasierako proiektuak eragin du, ez baitzu-

ten antzeman lur-azpian urputzua zegoenik. Hori dela eta, beste proiektu osagarri bat egin behar izan da ur horiek ondo biltzeko. Jakina, horrek berez ekarri du egunduko atzerapea. Gainera, proiektu berritua idatzi eta martxan jartzekoa zenean enpresa eraikitzaileak (TECSAk) barne-arazoak izan omen ditu. Esan digutenez, konponbidean dira arazo guztiak, eta hil honetan obrei ekingo omen zaie. Ikusiko dugu.

Arazoak arazo, uda-giroa ere heltzen ari zaigu. Aurtengoan ere Udako Txokoak antolatu ditu Eskola Txikiko Gurasoen Elkarteak, Herri-Batzarraren laguntzaz. 2 eta 9 urte bitarteko haurrentzat antolatu dira jolas-



txoko hauek uztail-abuztuan, goizeko 9:30etik 13:30era. Apuntatu nahi duenak ekainaren 20a bitarteko epea du.

Jolaserako ez, baina dantzarako gogo duenak ostiraletan du aukera, arratsaldeko 7etan. Ordu horretan eskola txikietan elkartzen gara Santio egunean dantza-sokan ariko garenak.

## Dokumentu historikoak biltzeko proiektua abiarazi da

**G**auza jakina denez, udaletxea 1907an erre egin zen. Horren ondorioz, bertako material guztia galdu egin zen, artxiboko dokumentazio guztia barne. Harrez gero, soilik XX. mendetik honako dokumentazioa da jasota geratu dena. Aurreko guztia galdutzat ematen baita. Hala ere, badira Usurbilgo dokumentuak han eta hemen banatuak. Lan zaila eta ezinezkoa litzateke informazio hori guztia lokalizatu, bildu eta herriratzeari. Lokalizazio lana egiteko ekimena da, funtsean, Udalak abiarazi duena.

Niko Bengoetxea kultur zinegotziak argitu digunez, Udalak helburu bikoitza du: ahalik eta dokumentu gehien lokalizatu eta horiekin guztiekin datu base bat osatu.

Hori aurreratzen bada, etorkizunean Usurbili buruzko azterketak egiteko oinarria finkatuko litzateke. Niko Bengoetxearen ustez, "aurrerantzean ikerketa ezberdinak egiteko bideak irekiko genituzke".

Beraz, datu-base hori arakatzelanean emaitza izango litzateke. Eta hori herriaren esku egongo litzateke. Hori gauzatzeko, Udalak pertsona bat jarriko du horretara bederatzi hilabetez. Kontratazioa publizitaterik gabeko ihardunbide negoziatuaren bidez esleituko da.

Gauzak behar bezala bideratzen badira, uztailean hasiko



1907an udaletxea erre zenetik soilik XX. mendetik honako artxiboa gordetzen da.

litzateke pertsona hau lanean.

Lan honen amaieran ez da Usurbili buruzko lan monografiko bat baztertzen. Ikuspegi historiko bat izango luke lan honek baina hori ikusteke dago oraindik. Lehenik eta behin, dokumentazio lan handia egin beharko baitu kontratatua izango denak:

- Usurbili buruzko dokumentazioa duten artxiboak ikertu.

- Aurkitzen den agiri bakoitzaren fitxa egin, datu base bat osatuz. Beti ere, udal artxiboko programa erabiliz.

Bestetik, udal fototekako argazkien digitalizazioa, antolaketa eta informazio bilketa egiteko kontratazioa ere martxan jarri du Udalak. Hitzarmen hau ere publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez esleitua izango da. Kontratua 6 hilabetez izango da baina Gobernu Batzordeak kontratua 4 urte bete artean luza dezake bi aldeak ados badaude, noski.

### ► Ezinduei zuzenduriko etxeen onuradunak jakinarazi dira

Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa martxoan egin zen. Dena den, ezinduen artean zozketatu beharreko bi etxebizitzaren esleipena atzeratu egin zen.

Epaimahaiak azkenean erabaki bat hartzeko moduan izan da eta hauek izan dira bi etxebizitzaren onuradunak:

- Andoni Aizpeolea Oiarbide.
- Pedro Alkorta Larburu.

Felisa Izagirre Aldabaldereen eskaera bertan behera utzi zuen epaimahaiak.

### ► BCLren mailegu eskaintza onartu da

2002ko urteko aurrekontuaren barnean, epe luzerako kreditu eragiketa aurrikusi zen: 1.201.930 eurokoa eta 15 urteko iraupenaz, lehen bi urtetan interesak bakarrik ordainduz.

Mailegua kontratatatu baino lehen eskaintza ezberdinak aztertu dira.

Hiru dira Hazienda Batzordeak kontuan izan dituen lehentasunak: eskaintza bakoitzaren finantza kostua maileguaren iraupen osoan; Udalaren beharretara egokitzeko erraztasuna; eta finantza erakundearekin harremanak, malgutasuna eta dependentzia. Udal kontu-hartzaileak jasotako datuei jarraiki, BCL finantza erakundearen eskaintza onartu da.

ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

## TABERNA-JATETXEA



EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

## RAMON BARCENILLA

. Pikor- pintura eta  
gotele lanak  
. Papereztatze-lanak  
. Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66

## Kontribuzioaren borondatezko ordainketa, uztailaren 4a bitartean

**U**dalak ohar honen bitartez bi zergen inguruko epeak gogorarazi nahi dizkigu: batetik, urteroko ondasun higiezinaren gainerako zerga. Bigarrenik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gainerako zerga. Adi, beraz, ordainketa epeekin.

2002.urtean Ondasun Higiezinaren gainerako Zerga (kontribuzioa) maiatzaren 15etik uztailaren 4a bitartean kobratuko da. Zerga honen ordainketa helbideratuta (domiziliatuta) duten pertsonen 2002eko uztailaren 1a kargatuko zaie kontuan eta helbideratu gabe dutenei adierazitako helbidera bidalikoa zaie imprimakia ordainketa egin dezaten.

Herritar guztiei jakinarazten zaie maiatzaren 15etik uztailaren 4a bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dutela borondatezko epean Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren Zerga.

Apirilak 23a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean 2002ko uztailaren 1ean.

Helbideratu gabeak eta gainerako ordainagiriak, ordean, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira maiatzean, Kutxa, Euskadiko Kutxa, Guipuzcoako banketxean edo Udaletxeko zerga bilketa bulegoan ordainduak izan daitezten.

Era berean, zergadunak helbideratu gabe dituzten ordainagiriak helbideratzeko aukera izango dute udaletxean, Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Guipuzcoano Banketxean 2002. urteko ordainagiria ordaintzera doazenean agindua emanik.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izando ditu, igandeak eta jaiegunak izan ezik Usurbilgo zergabilketa bulegoan.

Ekainaren 20a iritsi eta zergadunak ordainagiria ez badu etxean jaso, Usurbilgo udaletxeko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzkoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko jardunbideari ekingo dio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotek %20ko ginkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.

### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainerako zerga

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari dagokionez, 2002. urteko biñetak ordaintzeko epea ekainaren 15ean amaitzen dela gogorarazten zaie herritarrei.

### ► Nekazaritza ustialekuak diruz laguntzeko eskaera epea zabalik

Nekazaritza batzordeak ustialekuek inbertsioak egiteko eta nekazari gazteak ustialekuek jartzeko laguntza eskaerak aurkezteko epea ezarri du 2002ko apirilaren 22ko foru aginduari jarraituz. Prentsa-ohar batean agertu digun eran, "nekazaritza ustialekuek inbertsioak egiteko eta nekazari gazteak ustialekuek jartzeko 2002. urtean laguntza eskaerak aurkezteko epea ekainaren 1etik urriaren 31 artekoa izango da".

Eskaerak ustialekua kokaturik dagoen eskualdeko nekazaritza bulegoan aurkeztu behar dira.

### ► Hainbat bide asfaltatzeko konpromisoa

Azken Gobernu Batzordean hainbat bide asfaltatzeko konpromisoa hartu zen.

Txokoaldetik hasi eta Lartzan dietaraino doan bidea konpontzea premiazkoa zenez, enpresa bakarrari eskatu zitzaion asfaltatze-lanak egiteko aurrekontua. Guipasa enpresari esleitu zaio bide zati hori konpontzearen ardura. Guztira, 4.608,68 euroko kostua izango du obra honek.

Era berean, Ameri errekatik Urteaga baserriraino doan bidearen asfaltatze-lanak enpresa berberari esleitu zaizkio. Lan hau burutzeko 8.999,52 euroko aurrekontua onartu zen Gobernu Batzordean.



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**



**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

# San Markos Mankomunitateak dioenez, hondakinak ez ditugu ondo bereizten

**K**anpaina asko egin dira birziklatzea sustatzeko. Halaber, ahalegin handiak egin dira hondakinak behar bezala jasotzeko. Horren lekuko, gaur egun kaleetan topa ditzakegun edukiontziak: horiak, urdinak, berdeak... Dena den, ez omen gara hondakinak bereizten oso trebeak. Horri aurre egin asmoz, San Markos Mankomunitateak sensibilizazio kanpaina berri bat abiarazi du.

Birziklatzea denon ardura da. Azpiegitura nahikoak badira baina guztion kontzientziazioa funtsezkotzat jotzen du San Markos Mankomunitateak. Hiritarron esku dago beira, papera-kartoia eta ontzi arinak poltsa ezberdinetan biltzea. Baina hondakin horiek guztiak gainerako hondakinetatik bereiztea

ere bada gure ardura, birziklatzera botatzen duguna berreskuratzea ahal izateko.

Kantitatean gora egin du birziklatzeko hartu dugun joera. Kualitatiboki, ordea, asko dugu egiteko. Izan ere, edukiontzi bakoitzean behar ez diren hondakinak botatzen baititugu. Hondakinen %26,31a edukiontzi desagokian isurtzen dugu. Kopurua ez da makala, eta San Markos Mankomunitatea kezkatuta azaldu da. Joera honek, hondakinen berreskuratzea zailteaz gain, arazoak eragiten dituelako Urnietako birziklatze enpresan. Sailkatze prozesuan (poltsak irekitzeko sisteman, zinta garraiatzaileetan, arraboletan...) era desagokian botatzen ditugun hondakin horiek matxurak eragiten dituzte birziklatze-makinetan. Eta behin baino gehiagootan



Prentsaurrekoan arduratsu azaldu ziren San Markos Mankomunitateko kideak.

matxura horiek Urnietako plantak gelditzea eragin dute. "Birziklatzeko sistema gelditzerik nahi ez baduzu, bereizil!" lelopean, San Markos Mankomunitateak 67.000 euro gastatuko ditu sensibilizazio kanpaina honetan.

Izan ere, Mankomunitateak, ontziak kudeatzen parte hartzen duen erakunde publikoa den neurrian, gaikako bilketa-sistemak optimizatu nahi ditu.

## Reciclator, birziklatzen trebea den superheroia



**D**agoeneko Usurbilgo haurrek badute lagun berri bat: Reciclator. Birziklatzen lagunduko dien bideojoko berriaren protagonista da Reciclator. Ingurumenaren Nazioarteko Egunean, ekainaren 5ean, San Markos Mankomunitateak 6-12 urte bitarteko haur guztien artean banatu zuen bideojoko bana.

Ordenagailura egokitzen den jokoa honetan, Reciclatorrek ingurua garbi uzten saiatuko da. Guztira, lau maila gainditu behar dira garaile izateko. Jokoa koloretsua eta dinamikoa denez, atsegingarria da Reciclatorri laguntzea. Hori bai, hondakin bakoitza bere edukiontzian bota beharko du.

Lehen mailan, hondakin organikoak bakarrik bereizi behar dira. Bigarren mailan, papera eta kartoia. Hirugarrenean, ontziak ere jaso beharko dira. Eta laugarren mailan, zailenean, beirazko hondakinak bildu eta birziklatu beharko dira.


Dena den, kaleak garbitzeko ahaleginean, Reciclatorrek oztopoak izango ditu bidean:



**Mr. Gorrino.** Herria zikin mantendu nahi duenez, ez dio Reciclatorri bere lana egiten uzten.



**Kakadrilo mihiluzea.** Zakarazalea, bere mingain luzeari aurre egin beharko dio Reciclatorrek.



**Huevot.** Metalezko etsai arriskutsua.



**Ojalien.** Egan egiten du eta horregatik zaila da Ojalien aurre egitea.

## Heriotzak bizia eragiten duenean


**A**lcer edo Giltzurrun Gaixoen Elkartekoek organoen donazioa sustatzeko kanpaina egin berri dute. Asmoa, organoen donazioa areagotzea. Astebe-  
tez, kalera atera ziren gaia plazaratu eta guztion arreta bereganatu asmoz. Eskaera, egia esan, kontuan hartzekoa da. Beharrezkoa zaigunean baino ez gara era honetako donazioetan jabe egiten. Jose Luis Usandizaga Alcer elkarte-ko kidea, orde, donazio bati esker bizi da. Berak izan zuen aukera beste batzuek izan dezaten ahalegintzen da orain.

Jose Luis Usandizagaren esanetan, "Gipuzkoan kontzientziazioa handia da. Jendea kontzientea da organu-emaile izatearen garrantziaz. Nik horri esker bizi naiz. Baina hala ere, emaile gehiago behar dira".

Izan ere, donazioetan -odol-emaileen artean bezalaxe-,

gorabehera handiak izaten dira. Beharrak, orde, beti bezain premiazkoak izaten dira. Inoiz ez da nahikoa izaten. Horregatik, Alcer elkarteak berriz ere gaia kalera atera du guztion konplizitatea funtsezkoa delako. Giltzurrun gaixoen elkartea bada ere, bestelako gaixoak ere biltzen dira elkarre honen baitan. Eta hauek dira ez soilik giltzurrunak, baita bestelako organoak ematearen alde kanpaina egiten duten bakanetakoak.

Nahiz eta bestelako irudipena izan, oso gutxi dira organoak lortzeko aukerak. Hasteko, hildakoen %1ak baino ez ditu emaile izateko baldintza egokiak betetzen. Farmazian topatu dugun idatziak hala dio: "emailea ospitale batean hildakoa behar du izan burmuineko lesioa, odol-jarioa, traumatismo kasuetan". Beste heriotz kasuetan, ordu batzuko tarte baina ez dago hil-



dakoaren organoak baliogarri izateko.

Organo emailea, printzipioz, edonor izan daiteke. Baina organo hori ez da edonoren-tzat egoki izaten. Horregatik, beharrezkoa da ahalik eta emaile gehien izatea. Gaixo daudenak organo egoki baten beharrean denbora asko itxaron ez dezaten.

## Nola egin naiteke organo emaile?

Gertutik tokatu arte ez gara donazioen garrantziaz jabetzen. Batzuk hil eta gero organoak ematearekin uzkur azaldu ohi dira. Baina orokorrean, jendea jabetzen da organo emaile izateak duen garrantziaz. Hala ere, asko dira oraindik paperak bete ez dituztenak. Emari-txartelak herriko bi farmazietan eskuratu ditzakezue, baita beste

herri batzuetako farmazietan zein osasun zentroetan ere. Dena den, organo emaile egiteko txartela ez baduzu inon topatzen, hemen duzu Alcer elkartearen telefonoa: 943 469 047.

Aldiz, emari-txartela eskuratu baduzu gogoan izan helbide hau: Alcer Elkartea – Caracaseko Erret Konpainia

Gipuzkoarra kalea, 12- 20011 Donostia. Orria bete eta helbide horretara bidali. Zure datuekin batera, bi lekukoen sinadurak ere bildu beharko dituzu.

Jose Luis Usandizaga kalean topatzen baduzue, berak ere jaso eta Alcer elkartera eramateko ohitura baduela argitu digu.

Kale Nagusia, USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 11



# MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia  
hemen aurkituko duzu

*Udaberriko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

*Zinkildegia*

Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behe,  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

**LABE-GOXO**  
Distributorea: 02024749

## Carlos Zabala, Arrastalu: "Natura da nire iturri nagusia"

**T**olosako Aranburu Jauregia Arrastaluren lanen egoitza izan da azken aste hauetan. Pintura eta eskultura obra ugari begibistan ipini ditu egileak. Txokoaldera hurbildu eta Arrastalurekin solasean aritzeko aitzakia bagenuen. "Inguruan txertatua bizitzea" interesatzen zaiola aitortu digu. Txorien kantua, behintzat, ozen entzuten da Carlos Zabala Arrastaluren bizi-tokian.

**Nola azalduko zenuke Tolosako Aranburu Jauregian egin duzun erakusketa?**

Printzipioz ez dut erakusketa Tolosarako espreski osatu. Eskultura eta pintura lanak jaso ditut. Pare bat eskultura erakutsi nituen Usurbilen duela urte batzuk. Tolosan gehiago azaldu ditut, lekua horretara egokitzzen zelako.

Dena den, orain oso zentratuta nago pinturan, errealismo intimoan batez ere.

**Batez ere, pintore bezala zara ezaguna zara.**

Bai, baina artistaren perfila sekula ez da espezialista batena izaten. Disziplina ezberdinak ikutzen dituzu, eta agian gehiago zabaldu duzu zure lana arlo konkretu batean. Baina bestelako joera batzuk ere baditut. Eskulturan betidanik egin ditut gauzak baina ez dut horrelako produkzio hain handirik egin. Idatzi ere idazten dut. Asko interesatu zait arkitektura, biologia... nire pinturan oso ondo islatzen da afizio hori. Eta askotan txertatuta agertzen da. Naturarekiko harremana oso bizia dut eta nire lanean garbi azaltzen da.

Azkenean aukeraketa bat egin behar duzu. Disziplina ezberdinetatik Arteak aukeratu



*Disziplina ezberdinetan aritzea gustuko duela aitortu digu Carlos Zabalak.*

nuen, disziplina guztiak ikutzeko aukera ematen didalako. Arkitektura interesatzen zait baina beste alde liriko batetik.

**Zeintzuk izan dira zure erreferentzia nagusiak. Ba al duzu eragin konkreturik?**

Aislaturik ez gara bizi. Ez da posible. Kobazulotik hasi eta gaur egun arte izandako artista guztiak eragin handia izan dute nigan. Nik sekulan ez dut kopiatzeko edo imitatzeko denborarik eta beharrik izan. Artistak alde autentiko bat dauka. Bere baloreak ditu. Badu sormena bestela ez da horretara dedikatzen. Artean jarraitzen dugunok zeozer emateko dugulako da. Izen bat nahi duzu? Garcia-Lorca. Ez da pintorea, ezta? Agian margotuko zuen. Baina askotan literaturak eragin gehiago izan du nigan.

**Iturriak anitzak izan daitezkeela, alegia.**

Eta nire iturri nagusia natura da. Gaia hain da sakona baina asko interesatzen zait hori ezagutzea. Zer zapaltzen dudan, zein da txori hori,

zuhaitz hori nolakoa da... txertatua egotea inguruarekin.

**Non dago Arrastalu eta Carlos Zabalaren arteko muga.**

Agian Arrastaluk gehiago definitzen du joera pertsonal hori, joera artistiko hori. Familia-ko ez-izen bat da. Aitonarena zen, eta galdua zegoen. Gehiago identifikatzen da interes artistikoarekin. Elementu antropologiko batekin lotzen da Arrastalu. Eskuare edo ikuilu-atxurrari hala deitzen zaio Nafarroan, arrastalu. Erakusketak ere hala izendatu dit.

---

**"Ni ez naiz perfekzionista bat"**

---

**Baina bada ezaguna den Arrastalu bat, Arrastalu pintorea.**

Bai baina nire ibilbidea oso bariatua izan da. Artearekin oso lotua beti ere. Nire kontzeptua ez da espezialista baten lana. Ni ez naiz perfekzionista bat. Denbora oso laburra da dena betetzeko. Agian ez naiz sekula kristoren pintorea izango, kristoren eskultorea izango, kristoren idazlea, kristo-

ren arrantzalea... baina saiaturako naiz fronte guzti horiek batera eramaten, nire bizitza osatzen. Nire elikadura ere oso bariatua baita. Ez dut bakarrik patata jaten, ez dut bakarrik haragija jaten...

### Ogibide izan al da artea?

Nik ogibide asko izan ditut. Ilustrazio asko egin ditut (kartelak, liburuak, disko-azalak, logotipoak...). Artea ikerketa bat da niretzat. Ez da produkzio unilaterial bat. Ikerketa horretatik arrasto batzuk azaltzen dira eta ogibideak horren inguruan izan dira. Pintorea zarelako dibujatzen duzu, sormena duzu, trebetasuna ere lortzen duzu. Klaseak eman ditut ere, Usurbilen urte askotan aritu naiz horretan. Herriarekiko zerbitzu bat egin dut eta herriak ere lagundu dit horretan. Elkar harreman bat izan da. Sinbiosis oso polita. Herriarekin ere txertatzeko baliogarria izan da, ni berez Irungoa naizelako.

Konstrukzioan ere ibili nintzen,

hiru-lau hilabetez. Asko ikasten duzu. Ikastolan preteknologia tailerra jarri nuen martxan. Baita pintura eta dibujokoak ere. Gero ETBko aukera ateratzaidan. Niretzat oso inportantea izan da eszenografia. Txikititan operak eta ikusten nituen, zarzuelak, ez espektakuluarengatik, eszenografiarengatik baizik. Gustuko lana dut. Eskultura eta arkitekturarekin lotuta dago.

**Amaitzeko, Jexux Artze joan zaigu. Gertuko laguna zenuen. Naturarekiko harreman horretan ere oso gertu zaude.**

Artze anaiak Irunen nengoe-la ezagutu nituen, aspaldi, Ez Dok Amairu garaian. Oso harreman afektiboa izan dut Jexuxekin, Joxeanekin, Mikelekin... oso erlazio familiarra. Lagunak bezala apreziatzen ditut. Nik horrelako gauzetan, koldarra naizelako edo agian ez, baina nik gauzak beste era batean hartzen ditut. Ez dut tragedia bat bezala hartzen baina horrela hartzen dutenen jarrera oso ulergarria iruditzen



*Erakusketan era honetako eskulturak ikus zitezkeen.*

zait. Ni ez naiz nigarrez hastekoa. Heriotza ez da ezer, amets batean gertatzen den gauza da. Agian bost urtera konturatuko naiz. Niretzat lagun bat da eta ez da sekula joango. Ez da ezer gertatu. Jexux pilo bat maitatzen jarraitzen dut.

**Imanol Ubeda**

## Natura, abiapuntu eta helmuga

**A**rrastaluk nahikoa du leihora atera desirazko natura arnasteko. Txalupa ere badu eta arrantzara atera ohi da. Txalupatik bertatik egindako margoak ikus ahal izan ditugu Aranburu Jauregian. Mendira atera eta hortik zehar ibiltzea ere gustuko duela aitortu digu.

Etxe aldamenean putzu bat egina du, "mikroklima" moduko bat osatuz: "pintatzeko egin nuen, argiak eta itzalak estudiatzeko...", eta han ematen ditu orduak eta orduak. Etxe parean ere bada berak eginiko kabi bat. Txoriek bere egin dutena. Arte praktikoa, hori.

Gustuko ingurunean bizi da. Baina ingurune pertsonala ere oso artistikoa da. Emaztea margolaria eta kantaria, seme-alabak ere musikan dabilta... Arrastaluk normaltzat hartzen duen egoera: "giro horretan bizi gara, horrela da. Amaia eta ni horrelako giroan ezagutu ginen. Nire lehen kritikoa Amaia izan da. Beraiek dira nire koadroak lehenengoz ikusi dituztenak. Azpitik bada sentsibiltate erlazio bat, sentsibiltate landu bat akaso. Irizpideak oso elkartuak ditugu, denerako. Seme-alabena ere normala da, ezta? Arraroa izango zen kontable bat ateratzea. Amaia kantatzen ari zela, ni pintatzen ari nintzela... horrela



*Gustuko lekuan bizi dela adierazi digu Arrastaluk.*

jaio dira. Konturatu gabe euren burua horrelako saltsatan ikusi dute. Normala".

## Tabakozaletasunari mugak jarri nahian

**E**rretzaileak erreta egote-ko arrazoirik badute. Nafarroan lege proiektu baten bidez lantokian erretzea debekatuko da. Baina hor ez da tabakozaletasunaren aurkako kanpaina amaituko. Izan ere, epe laburrera neurri hori osasun eta hezkuntza zentroetara, astialdiko gune itxietara eta kirol instalazioetara zabaldu nahi baita.

Nafarroako Gobernuak proposaturiko neurriak beste herrialdeetara zabaltzeko aukera handiak daude.

Beraz, argazki kamera eta grabagailua hartu eta kalera irten gara jendearen iritziazen bila. Eta egia esan, gure galderei erantzutea ausartu diren gutxi hauek begionez hartu dute Nafarroako Gobernuaren ekimena.



*Irudi hau Nafarroako lantoki askotan zaila izango da ikustea.*

## Zer iruditu zaizu Nafarroan hartu duten neurria?



Izaro Sarasola,  
Kaleberri.

**N**i ados nago era horretako neurriekin. Oso ondo iruditzen zait. Tabakoak asko izorratzen du. Erabat debekatuko balute ere...

**O**so ondo iruditzen zait. Nire lantokian ez da erretzen. Nik bi etxetan egiten dut lan eta bi etxetan inork ez du erretzen. Orain, nire senarrak erretzen du bi etxetako partez, pilo bat!

Baina balkoian izaten da erretzen.



Ana Arruti,  
Kaleberri.



David Sanchez,  
Santuenea.

**P**rimera, oso ondo iruditzen zait. Ez lidake eragingo.

Hemen ere neurri hori hartuko balitz ondo irudituko litzaidake.

**E**z dakit, ni ez naiz erretzailea baina, egia esan, lanean kearik ez izatea eskertzekoa da.

Dena den, gure enpresan erretzeko tokia ez dago behar bezala jarrita. Komunera joan behar izaten da erretzera. Gauzak ez daude ondo jarrita eta orduan kexarik izaten da.



Juanjo Iribar,  
Galtzaragaina.



### Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



- Bokadiloak
- Plater konbi
- Pintxoak
- ...

Kontseju zaharra kalea, 13

## Entseatzeko lokal berriak eskuratu dituzte herriko musikariak

**U**surbilgo musika taldeek jada badute non entseatu. Kalezarren, Ikastolako aspaldiko egoitzan, lau entsealeku egokitu ditu Udalak. Han dira jada musikariak. Eraikin berdinean daude haur-eskola eta laster zabalduko den Eguneko Zentroa. Dena den, ordutegia hiru eskaintzak bateratzeko moduan egokitu dira.

Herri askotako arazo izan ohi da entsegu lokalena. Usurbilen, ordea, musikariek jada badute non lan egin. Ikastolaren aspaldiko egoitzan lau entsegu-leku atondu baititu udalak. 9 musika talde eta bakarlari bildu dira bertan. Hala ere, lau lokaletan antolatu beharko dira. Hortaz, euren artean antolatu beharko dira talde bakoitzari dagozkion

egunak eta orduak zehazteko.

Egokitu diren lokal hauekin, aspaldiko eskaera bat bete du Udalak. Agerialden baziren hainbat talde entseatzeko. Baina arautu gabeko egoera batean. Kalezargo lokal hauek hutsik geratu zirenean, Udalak musikarientzako atontzea erabaki zuen.

Beraz, doako zerbitzua da honako hau. Hala ere, musikariek fidantza moduko bat jarri behar izan dute, batez ere balizko kalteei aurre egin ahal izateko.

### Astean zehar soilik arratsaldez entseatu ahal izango da

Hasiera batean, urtez urteko kontratu bat sinatu dute musikariek eta Udalak. Baina arazorik ez bada eta musikariek



Sen taldekoak trasteak prestatzen harrapatu genituen.

hala nahi badute, urte batzuetarako badute non entseatu.

Astean zehar, arratsaldeko 19:30etatik 21:30etara mugatu zaie entseatzeko ordua. Asteburuetan, ordea, gaueko 22:00ak arte aritzeko aukera izango dute.

Lokal hauetan diren musikarientzako artean dira Labrit eta Sen taldekoak.

## Ikasturteari amaiera emateko jaialdia antolatu du Zumarte Musika Eskolak

**E**kainaren 15a urte osoan egindako lana erakusteko eguna izango da. Zumarte Musika Eskolako ia 100 ikasle igoko dira Oiardoko kirolguneko oholitza gainera. Ikasle hasiberriak, ordea, ekainaren 17tik 20ra arituko dira Zumarteko Ganbaran.

Ikasturtea amaitzera doa. Eta ohikoa den bezala, eskolako ikasleen jaialdi batekin amaituko da ikasturtea. 22:15ean hasiko da musikarientzako festa eta kontzertu honetan Alboka-trikitilari-dantzari taldea, Orkestra eta Eskusoinu taldea, Usurbilgo Txistulariak, Zumarte Abesbatza eta Zumarte Gazte Abesbatza hartuko dute parte.

Musika nagusi izango bada ere, dantzak ere ikus ahal

izango ditugu. Usurbilgo Alboka Taldea eta Errenteriako Ereintza Taldearen eskutik, hain zuzen. Ikasleak dira ikasturte amaierako protagonistak baina aipatzekoa da, halaber, zuzendarien parte-hartzea. Miguel Angel Garcia Zumarte Orkestra zuzenduko du. Francisco Javier Ricónen aginduetara, berriz, Zumarte Eskusoinu Taldea arituko da. Josu Izagirre zuzendariak txistulari taldea gidatuko du eta abesbatzak, berriz, Imanol Elizasuk.

Hori guztia ekainaren 15ean bizi ahal izango dugu Oiarde Kiroldegian.

Baina hor ez da amaituko ikasturtea. Hasiberriek ere euren lanaren berri eman nahi digutelako. Ekainaren



Orkestrako kideak ere ikasturte amaierako ekitaldian arituko dira.

17an Zumarteko Ganbaran bibolina, piano, saxo eta klarineteko ikasleak Zumarteko Ganbaran arituko dira 18:30etatik aurrera. Hilaren 18an eta ordu berean, alboka, txistu, gitarra eta tronpeta ikasleen txanda izango da. Ekainaren 20an amaituko da ikasturtea eskusoinu, perkusio, flauta eta gitarrako ikasle berrien saioarekin.

# Ekainaren 23an irekiko da "Uda Kirola 2002" kanpaina izena emateko epea

**G**ainean da uda. Kirol gehien egiten den urtaroa denez, arrakasta handia izan ohi du Udalak Foru Aldundiaren laguntzaz antolatu ohi duen kanpainak. Gure artean, tenisa da gazteen artean lagun gehien biltzen duen kirol jarduera. Mendi bizikleta eta eskalada, badminton-a, igeriketa eta aerobik saioek osatzen dute aurtengo eskaintza.

Hauek dira aurtien Oiardo Kirolegiak uztailerako antolatuko duen egutegia:

## Tenisa

6 urtetik aurrera. Hiru txanda, aukeran: uztailak 8-12, uztailak 15-19, uztailak 22-26. Ordua: 11:00etan.

## Mendi bizikleta, eskalada

9 urtetik aurrera. Hiru txanda, aukeran: uztailak 8-12, uztailak 15-19, uztailak 22-26. Ordua: 9:00etan.

## Badminton

6 urtetik aurrera. Hiru txanda, aukeran: uztailak 8-12, uztailak 15-19, uztailak 22-26. Ordua: 10:00etan.

## Igeriketa

3 urtetik aurrera eta baita helduentzat ere. Uztailaren 15etik 22ra, edo hilabete osoan.

## Aerobik

Hilabete osoa (2 edo 3 egun). 9:00etan edota 19:00etan. Helduentzat.

Izena emateko epea ekai-



Igeriketa eta tenisa dira udan arrakasta gehien izaten duten proposamenak.

naren 23an zabalduko da. Hilaren 28a bitartean, eskaintza hauetako batean izena emateko aukera dugu. Dena den, argibide gehiago jaso nahi badituzu, hementxe duzu kiroldegiko telefono zenbakia: 943 37 24 98.


## Foru Aldundiak diruz lagundutako kirol jarduera

**A**urreko urteetan bezala, Gipuzkoako udalerriek "Uda 2002" kiroleko jardueren kanpaina egin dezaten bultzatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bidez. Kanpaina honen helburua lurraldeko udalen lankidetzarekin urte sasoi berezi horretan herritarrek azaldu ohi duten kirolzaletasun nabariari erantzutea da.

Gipuzkoan gauzatzen den kan-

painako jardueretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskolako kirolari dagozkionak subentzionatzen ditu irizpide hauen arabera:

-Eskola Kiroleko Jarduerak izenekoak 16 urte artekoie zuzendutako daude eta urtean zehar egiten direnak errepikatu gabe, lehentasunez naturarekin harremana duten modalitateetako, eta udalerrian kirol anitzeko eskaintza osatuko dutenak izango dira.



## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021

## ESTETIKA ZENTROA

**LOURDES LARRAÑAGA**

- Depilazioak
- Aurrepegioko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea  
Telf: 943 36 28 87

# Herriaz jabetu zen Euskal Bizikleta 2002

**E** kainaren 5ean iritsi zen Euskal Bizikleta Zumartegiko industrialdera. Lehen etaparen amaiera gertutik ikusteko aukera izan genuen eta Pedro Horrillo Mapei taldeko txirrindulari ermuarra izan zen Usurbilgo helmugan sartu zen lehena.

Bigarren etapa Usurbildik abiatu zen eta Jose Antonio Altuna alkateak eman zion irteera ofiziala. Julian Gorosperen aginduz, Zubeldiatarak ez zuten parte hartu Euskal Bizikletan baina irteera-ekitaldian ez zuten hutsik egin nahi izan.

Azkenik, Noaua!ko gehigarriko lehiaketa Onintze Kaminok irabazi du. Zorionak!



Alkateak herriko txirrindularien laguntza izan zuen irteera-ekitaldian.



Gaztetxoak han eta hemen ibili ziren txirrindularien sinadura eske.



Pedro Horrillok etapa eta lidergoa eskuratu zuen Usurbilgo etapa amaieran.

## ► Gizon Proba ikusteko aukera berria

Santxabeletarako egun gutxi batzu baino ez dira falta eta jada jaso dugu egitarauaren aurrerapen moduko bat. Nabarmentzekoa ekainaren 30ean antolatu den gizon proba. Hori izango da, hain zuzen, festetako lehen ekitaldia.

## ► Pirineotara irteera antolatu du Andatzak

Andatza Mendi Elkartek pirinioetara abiatuko da ekainaren 29ko astebukaeran. Izena hilaren 25a baino lehen eman beharra dago Txiriboga tabernan. Ekainaren 26an bilera egingo da Andatzako egoitzan, 20:00etan hasita.

Irteera honetan pirinioetako Midi Bigorre eta Neouville gainak igo nahi dira.

## ► Futbito Txapelketaren finalak, hilaren 30ean

UGAk antolatzen duen futbito txapelketa azken txanpan sartu da. Kanporaketak oraindik amaitu ez badira ere, jada badakigu zein egunetan jokatuko den final handia. Aurten go txapeladunen izenak ekainaren 30ean ezagutuko ditugu. Finala arratsaldeko 19:00etan jokatuko da.

## ► Udarregi txapeldun


Infantil mailako Udarregi futbol taldeak Udaberri Txapelketa irabazi dio San Benito Lazkao taldeari 13-1eko emaitzarekin.



**TXIRIBOGA  
TABERNA**

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26



□ Manu Aranburu

## Nuklear lasterketa: Pakistan-India

Errusiar Federazioa eta Amerikako Estatu Batuetako (AEB) informazio zerbitzuek bat egiten dute: Pakistanek buru nukleardun 25 eta 50 misil artean ditu. Indiak (Mahatma Ghandi gaixoa) 100-150 misil.

Cachemirgo kontrola jokoan da, 1947an bi herri hauen artean artifizialki bitan bereiztua. Dagoeneko bi guda egon dira eta emaitza milaka hildako eta 2 milioi errefuxiatu. Tamalez, bi gobernuak (Indiakoa urnatan aukeratua, Pakistangoa militarki eskuratua) ez dute ulertu nahi guda dela irtenbiderik kaxkarrena.

Indar militarrek hain gertu izanik, misil nuklearrak nahita ala nahi gabe irtetzen badira, hartzen duten abiadurarekin, beste herriko agintariek 10 minutu izango dituzte erantzuteko. Eta ezinbestekoa da jakitea buru nuklearrik daramaten ala ez.

Hau gertatuko balitz, zuzenean 14 milioi hilko lirateke eta milaka lirateke irradiazioa eta kutsadura jasango luketenak.

Nola lortu dituzte herri hauek bonba nuklearrak? Pakistanek alemaniar teknikariek zentral nuklear bat jarri zuen martxan. Uranio 235a erre zuten, zati bat Uranio 238 eta Plutonio 239n bihurtu zen, beste uranioa errefinatu eta misilen buruetan kokatu zuten detonagailu batekin. Indiak gauza bera egin zuen: SESB izandakoan eta Txinan mamitutako teknikariek zentral nuklear bat eraiki zuen 12.000 langilerekin sekretupean.

Israelekin batera (35 misil nuklear) bi herri hauek ez dute sinatu nahi "No Proliferación de Armas Nucle-

ares" izeneko hitzarmena, mundu mailako bakea ziurtatzeko klabea den elementua.

Dena den, potentzia nuklearren arsenalak ikaratzeko modukoa da. Aurtan, AEBko gobernuak onartu duen aurrekontu militarra gehiegizkoa da eta "Galaxien Gudua" izenekoarekin jarraitzen dute: airean bertan misilak suntsitzeak nazioarteko segurtasuna kolokan jarri eta armagintza lasterketa ekarriko du. Eromenaren adibide garbiena potentzia nagusienak *cosmos*-era misildun sateliteak bidaltzea izango da. Erantzuteko denbora murriztuz eta suntsiketa nuklearraren arriskua handituz.

### Denbora faktorea nuklear garaian

Nuklear erruleta-jokoa ez bada gelditzen, edozein unetan hondamendi nuklearra gerta liteke. 1991n Yuri Zhilin kazetari moskobitak zioen moduan aukera haxe da: "iraunbizea edo gizakiaren suntsitzea".

Guda nuklear batean ez da irabazlerik edo garailerik izanen, ezin izango du inork kontatu.

Kontinente arteko misil balistiko bat Uraletatik New Yorkera 30 minututan iritsi daiteke. Konponbidea desarme nuklear osoa. 1945etik hona bada mundu mailako mugimendu bat horixe eskatuz.

Hiroshima eta Nagasaki (1945, Japonia) gehiago ez. Bi bonbekin AEBetako gobernu kriminalak 120.000 japoniar zibil hil zituen. Planetako milioika hiritarrok desarmea lortu behar dugu eta laster.

Denborak soilik arrazoiari uzten dio leku.

# TXURRUT

## TABERNA

Giro eta musika atsegina!



San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80



## Usurbil Autoak, S. C. L.

### Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitzearra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

## Lehiaketa



**Ezetz asmatu zenbat  
txakur dauden  
errolaturik herrian?**

**▣ 231 ▣ 631 ▣ 831**

**Saria:**

**Bi pertsonentzat afaria Bordatxo jatetxean**

### 135. aleko erantzuna



Erantzuna

**Ba al zenekien zer  
objetu zen irudian  
agertzen zena?**

**Albarkak, noski.**

**Irabazlea**

**Arantxa Iturrioz**

**Saria**

**Andoni Egañaren  
"Aitaren batean"  
izeneko liburua.**

## Erremedioen txokoa

### ▣ **Azaleko azkura**

#### **Osagaiak:**

- 300 gr. aloe
- Basokada bat whisky (ona bada, hobe)
- Arroz siropea: 3 koilarakada

Aloea garbitu eta moztu. Barruan daukan jelatina atera behar zaio. Osagai guztiak eltze batean bota eta irakiten hasten denean, sua jaitsi. 15 minutu sutan egon ondoren, guztia irabiatu behar da.

**✕ Zertarako balio du erremedio honek?** Normalean udaberrian eta neguan sartzean garenean, hostoak erortzen hasten dira. Orduan, oso ohikoak

dira azaleko azkurak. Horrelakoetarako, erremedio hau oso egokia izaten da.

**✕ Nola hartu behar da?** Egunean hiru koilarakada hartu behar dira; gosalduta, bazkalduta eta afalduta aurretik.



**BORDATXO  
EDARITEGIA**

**PINTXO BEREZIAK**

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

**WITZANGA**

**HERRIKO TABERNA**

Astebukaeretan bokatak, plater  
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

*Euskaral presoak etxera!*



**P A T R I**

**J A T E T X E A**  
**Eguneko bazkariak  
eta afariak**

Nagusia 6,  
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

# A genda

## EKAINAK 15 larunbata

- Zumarte Musika Eskolaren ikasturte bukaerako jaialdia. 22:15etan Oiardo kiroldegian.

## EKAINAK 20 osteguna

- Jailetako batzordearen bilera, 20:00etan pleno aretoan.

## EKAINAK 21 ostirala

- XXVI. Santixabel Bertsopaper Lehiaketan partehartzeko azken eguna. Gutxienez, 8 bertso gai librean bidali Udaletxera. Lehen saria, 180 euro.

## EKAINAK 24 astelehena

- San Juan eguna.

## EKAINAK 28 ostirala

- Uda Kirola 2002 kanpainan izena emateko azken eguna. Izen-ematea, Oiardo kiroldegian. Telefono zenbakia: 943 372 498.

## ✎ GARAJEAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- ✎ Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- ✎ Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

## ✎ ETXEBIZITZAK

- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- ✎ Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- ✎ Usurbilen gela baten bila nabil, lo egiteko bakarrik. Lekurik baduzu dei iezadazu: 653 011 842.
- ✎ Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest. Telefonoa: 626 680 915.

## ✎ LAN-ESKAERAK

- ✎ Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- ✎ Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. 943 36 43 10.
- ✎ Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauez. 943 371447 (Belen).
- ✎ Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalari-tza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- ✎ Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. ITelf: 647 220 966.
- ✎ Santixabeletan gustura egingo nuke lan. Beharrik baduzue, deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).

## ✎ LAN-ESKAINTZAK

- ✎ Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 zenbakietara.
- ✎ Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- ✎ Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

## ✎ BESTELAKOAK

- ✎ Erloju bat galdu da. Esferan koloreak ditu eta atzean izena eta data. Bilatzen baduzu deitu, 943 36 11 26.
- ✎ Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- ✎ Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- ✎ Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- ✎ Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- ✎ Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15"llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Tf: 649 322 873.
- ✎ Dominadun kate bat galdu du duela 15 egun. Aurkitzen baduzu deitu 943 37 00 56 zenbakira.
- ✎ Andatzen Nike markako zapatila txuria galdu zuten. Baita egurrezko katea, kolorekoa. Deitu 943 36 59 75.
- ✎ Apirilaren 24an Kalezarren txapel bat galdu zen. Bilatu duenak dei dezala: 943 36 12 35 / 943 36 60 14.
- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. 943 835441 telefonora (Begoña).

- ✎ Vespino AXL Motozikleta beltza, salgai. Telf. 943.365589.
- ✎ Fagor markako frigorifiko bat saltzen dut. 5 urte ditu baina berria dago. 943 36 69 95 (Inma).
- ✎ Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlatxo bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 zenbakira.
- ✎ Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 24an. Kiroldegitik frontoira bidean. Topatzen badituzu deitu 943 37 13 46, Maite.
- ✎ Aterpe tailerrean uztaila eta abuztuaren zehar pintura klaseak hartzeko aukera. Tel: 943 365 975 (goizez).
- ✎ Laredon apartamentua alokatzen dut hondartza aldamenean. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 52 80 / 656 717 745.
- ✎ Kanario bat topatu dugu Kalezarren. Giltza bat ere aurkitu dugu, Igor jartzen du bertan. 650 216 161 telefonora deitu.

## KIROL EMAITZAK

### Maiatzak 25/26

#### \* FUTBOLA

Urumea BHI **1** - Udarregi **1** (Infantilak, G)

#### \* ESKUBALOIA

Alaia Zarautz **27** - Usurbil KE **9** (2N, E)

Bidasoa **36** - Usurbil KE **4** (Jubenilak, G)

#### \* ARETO-FUTBOLA

Txotx - Peio Arraindegia **\*\***

Antxeta, atsedan

Aitzaga **0** - Salesiarak **4**

\*\* Taldea ez zen partidaren aurkeztu eta, ondorioz, partida galdu egin zuen.

### Ekainak 1/2

#### \* FUTBOLA

Udarregi **13** - San Benito **1** (Infantilak, G)

#### \* ARETO-FUTBOLA

Martu Kirol **7** - Txotx **6**

Antxeta **3** - Ataun Bitor J. **2**

Peio Arraindegia, atsedan

## Plis plas txalo ta jolas egitarauaren amaiera

**D**enetarik eskaini digu aurtengo Plis plas txalo ta jolas egitarauak: pailazoak, txontxongiloak, magoa, tailerrak... Ekitaldi guztietan haur ugari izan da, eta, orokorrean, balorazio oso ona egiten dugu antolatzaileok. Gainera, lerro hauen bitartez ere, auzoetako jai batzordeei gure eskerrak luzatu nahi dizkiegu, txokolatea egiten eta antolaketa lanean lagundu baitigute.

Eguraldiak ez zuen asko lagundu "Plis plas txalo ta jolas" egitarauko azken ekitaldian. Azken zita Kalezarren bazen ere, azkenean, herriko pilotalekuan

egin behar izan zen, euri zaparrada zela eta. Hala eta guztiz ere, Detraka taldeak arratsalde atsegina pasatzeko parada eskaini zuen.

Ikerlari zoro batzuk izan ziren



igaro larunbatean herrian. Hauek gizateriak betidanik desiratu duen denboraren makina asmatu zuten: "Makina Eroa". Makina honen bitartez, herriko neska-mutilek kondairaren aro ezberdinak eta pasarte dibertigarriak ezagutu ahal izan zituzten. Tartean, gainera, antzinako dantzak, rock & rolla, jokuak, eta martxa handia izan zen.

Emankizunaren ondoren, txokolate goxo-goxoa jateko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek.

Ekitaldi honekin, beraz, amaiera eman zitzaion aurtengo egitarauari.

## Euskararen ziurtagiria merkatarientzat

**"Herriko komertzioetan eros ezazu euskaraz"** lelopean, aurrera doa merkataritza euskalduntzeko kanpaina. Merkatariek jarrera ona erakutsi dute kanpainarekiko eta jarrera horrek euskararen normalkuntzarako bidean garrantzi izugarria du.

Datozen egunotan merkataritzako kanpainako arduraduna herriko saltokietara joango da. Bisita horretan honako material hau banatuko da: Udarregi

Ikastolako ikasleek egindako *Zabalik/Itxita* eta *ordutegi* txartelak eta **Saltokietarako eskuliburu**a. Eskuliburu honetan merkataritza arloko hiztegia, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen berri eta abar ematen da.

Honetaz gain, **ziurtagiri** bat ere banatuko da, kalitatezko zerbitzu euskaldunaren adierazgarri. Ziurtagiriaren helburua saltoki bakoitzak euskarari dagokionez zein egoera duen herritarrei jakinaraztea da.



**Ireki atea Noaua!  
Kultur Elkarteari eta  
egin zaitez bazkide!**

*Aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, Aitziber las-ter gerturatuko da zurera!*

**BAZKIDE TXARTELA**

30 EURO URTE OSORAKO

**Noaua!!**  
HAMABOSKARIA

Izena: \_\_\_\_\_  
1. Abizena: \_\_\_\_\_  
2. Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_



# SAIZAR

Jatetxea • Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 39 • Tel. 943 36 22 28

U S U R B I L



## ZUBEROTARREKIN BAT AUZOLANEAN

**USURBILEN HELBURUA: 8.750 €**

**Dagoeneko: 3.250 euro lortu dugu**

Zure ekarpena egin nahi baduzu,  
sartu dirua 140 00 1870 7 Euskadiko Kutzako zenbaki honetara

**MILA ESKER!**

*Xiberoa*  
garatzen!

